

2. Erakunde merkaturatzaileak ez baditu betetzen aurreko 1. zenbakian eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Araudiko lehenengo xedapen gehigarriko 3. zenbakian (araudi hori 2004ko uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuak onetsi zuen) aipatutako betebeharrak, erakunde kudeatzaileak edo inbertsio-sozietateak erantzukizuna izango dute Zerga Administrazioaren aurrean ez-betetzearen ondorioz edo Bizkaiko Foru Aldundiari eman beharreko informazioa ez ematearen ondorioz ordaindu gabe geratzen diren atxikipeanak eta konturako ordainketak direla eta.

3. Erakunde merkaturatzaileak ez baditu betetzen aurreko 1. zenbakian eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Araudiko lehenengo xedapen gehigarriko 3. zenbakian (araudi hori 2004ko uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuak onetsi zuen) aipatutako betebeharrak, egoiliar ez diren inbertsiogileen nortasuna eta haien zerga-egoitza Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko apirilaren 15eko 5/2013 Foru Arauan eta hura garatu duten arauetan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dira».

AZKEN XEDAPENAK

Lehena

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, 1. artikuluan xedatutakoa izan ezik. Horrek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bilbon, 2016ko uztailaren 26 an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-845)

2. El incumplimiento por la entidad comercializadora de las obligaciones mencionadas en el apartado 1 anterior y en el apartado 3 de la Disposición Adicional Primera del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de No Residentes, aprobado por el Real Decreto 1776/2004, de 30 de julio, dará lugar a responsabilidad de la entidad gestora o de la sociedad de inversión ante la Administración tributaria por las retenciones y pagos a cuenta que, en su caso, se hubieran dejado de ingresar como consecuencia de dicho incumplimiento o por la omisión de la información que se hubiera debido remitir a la Diputación Foral de Bizkaia.

3. El incumplimiento por la entidad comercializadora de las obligaciones mencionadas en el apartado 1 anterior y en el apartado 3 de la Disposición Adicional Primera del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de No Residentes, aprobado por el Real Decreto 1776/2004, de 30 de julio, determinará que la acreditación de la identidad de los inversores no residentes, así como de su residencia fiscal, se realice de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 12/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de No Residentes, y en sus normas de desarrollo.»

DISPOSICIONES FINALES

Primera

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Segunda

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia», salvo lo dispuesto en el artículo 1 que tendrá efectos desde el 1 de enero de 2016.

En Bilbao, a 26 de julio de 2016.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-845)

Euskara eta Kultura Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 131/2016 FORU DEKRETUA, uztailaren 26koa, 2016/2017an Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko arautegia ezartzen duena.

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikulua araberako, lurralde historikoei dagokie erakunde erkideek kirolaren sustapenaren arloan emandako legeak garatu eta betearazteko eskumena.

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak honako hau dio bere 2.3 artikuluan: «Aginte publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango ditu oinarrian:

(...)

«c) Goi-mailako kirola bideratzea eta sustatzea kirol federazioen parte-hartzearekin.»

Kirolaren Euskal Lege horren 5.f artikulua ezartzen du lurralde historikoetako foru organoei dagokiela goi-mailako kirolean etorkizun oparoa izan dezaketen kirolarietako laguntza tekniko eta ekonomikoa ematea. Lege horrek, 70.3 artikuluan, honela definitzen ditu etorkizun handiko kirolariak: lehiaketetan goi-maila lortu ez arren, horretarako gaitasuna erakusten duten kirolariak.

Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko jarduketako protokoloarekin bat etorruta, Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako teknikarietako osatutako batzorde misto batek kirolerako talentuak identifikatuko ditu etorkizun handiko kirolarien arte-

Departamento de Euskera y Cultura

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2016, de 26 de julio, por el que se establece la normativa del programa de detección y apoyo a deportistas promesas de Bizkaia en 2016/2017.

El artículo 7.b.6 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, establece que corresponde a los Territorios Históricos el desarrollo y la ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes en materia de fomento del deporte.

El artículo 2.3 de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco, señala que «los poderes públicos, en el ámbito de sus respectivas competencias, garantizarán el adecuado ejercicio del derecho a la práctica del deporte mediante una política deportiva basada en:

(...)

«c) La ordenación y el fomento del deporte de alto nivel con la participación de las federaciones deportivas.»

El artículo 5.f de la citada Ley Vasca del Deporte establece que corresponde a los órganos forales de los territorios históricos en su respectivo ámbito territorial la asistencia técnica y la ayuda económica de las y los deportistas promesa. Dicha Ley define en su artículo 70.3 como deportistas promesa aquellas y aquellos deportistas que, sin haber alcanzado el alto nivel competitivo, tienen fundadas expectativas de llegar al mismo.

Además, y de acuerdo con el Protocolo de Actuación entre el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia, una Comisión Mixta formada por personal técnico de la propia Diputación y del Gobierno Vasco, identificará, de entre las promesas, a las y los «talentos

an. Kirolerako talentutzat joko dira haien kirol ibilbideagatik edo kirol emaitzengatik kirol-lehiaketetan goi-maila lortzetik hurbil daudela egiaztatu duten kirolariak.

Azaldutakoa dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39 k) eta 64.3 artikulua ikusita eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 8ko 42/2016 Foru Dekretuak emandako ahalmenak aintzat hartuta, Euskara eta Kultura Saileko foru diputatu andreak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2016ko uztailearen 26ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.—*Xedea*

Foru dekretu honen xedea da 2016/2017an Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko arautegia ezartzea.

2. artikulua.—*Etorkizun handiko kirolariak identifikatzea*

Bizkaiko Lurralde Historikoko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta 2016/2017ko Programan sartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren informazio-iturria eskatzaileek eurek adierazitakoa izango da: eskabidea egiteko unean kasuan kasuko kirol merezimenduak adieraziko dituzte.

3. artikulua.—*Baldintzak*

Bizkaiko Foru Aldundiak 2016/2017ko etorkizun handiko kirolari izaera aitortzea nahi duten kirolariak baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Kasuan kasuko Bizkaiko federazioak 2016. urterako edo 2016/2017 denboraldirako lizentzia izapidetuta izatea.
 - b) 1997 eta 2002. urteen artean (biak barne) jaiok izatea.
- Salbuespen gisa, urte horiek baino lehen edo ondoren jaiotako kirolariak sartu ahal izango dira, betiere kasuan kasuko federazioak behar bezala justifikatzen badu.

2015eko irailetik eskabideak aurkezteko epea amaitu arte, gutxienez kirol-merezimendu hauetakoren bat lortu duten kirolarien eskabideak baino ez dira aztertuko:

- a) Bakarkako diziplinak:
 - Titulu ofiziala ematen duen nazioarteko lehiaketaren batean parte hartzea.
 - Estatu mailako errekorra haustea.
 - Estatu mailako 1., 2. edo 3. postua lortzea.
 - Estatu mailako (CSD-CAR...) edo autonomia erkidegoko errendimenduko talde eta/edo selekzioetan parte hartzea edo horretarako bidean egotea.
 - Euskadiko 1. postua lortzea.
 - Munduko txapelketa edo Olinpiar Jokoetan egotea ahalbidetzen duten probetan parte hartzea.
- b) Taldeko diziplinak:
 - Kirolariaren adinari edo goragokoari dagokion estatuko mailarik goreneko lehiaketa erregularrean aritzen den talde bateko kide izatea.
 - Estatuko selekzioko kide izatea.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko selekzioarekin titulu ofiziala ematen duen lehiaketaren batean parte hartzea.
- c) Kirol-merezimenduak aurrekoak ez diren kirol-lehiaketetan lortutako emaitzen bidez egiaztatze aukera duten diziplinen kasuan, foru dekretu honen 6. artikuluan ezarritako ebaluazio-batzordeak aztertuko du emaitza, kirolaren arloan daukan garrantzia kontuan hartuta. Garrantzi hori modalitate horretako Bizkaiko federazioaren txosten bidez egiaztatu beharko da.

deportivos», entendidas como aquellas personas que por su trayectoria deportiva o por sus resultados deportivos han acreditado encontrarse especialmente próximas a alcanzar el alto nivel competitivo en el ámbito deportivo.

En virtud de lo expuesto, vistos los artículos 17, 39 k) y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y habida cuenta de las facultades atribuidas por el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera y Cultura aprobado por el Decreto Foral 42/2016, de 8 de marzo, a propuesta de la Ilma. Sra. diputada titular del Departamento de Euskera y Cultura, previa deliberación y aprobación de esta Diputación Foral, en reunión de 26 de julio de 2016,

SE DISPONE:

Artículo 1.—*Objeto*

Constituye el objeto del presente Decreto Foral el establecimiento de la normativa del programa de detección y apoyo a deportistas promesas de Bizkaia en 2016/2017.

Artículo 2.—*Detección de Deportistas Promesa*

Con el fin de detectar a las personas Deportistas Promesa del Territorio Histórico de Bizkaia e incluirlas en el Programa 2016/2017, la Diputación Foral de Bizkaia recabará información de los y las propias solicitantes: en el momento de realizar la solicitud, deberán aportar los méritos deportivos correspondientes.

Artículo 3.—*Requisitos*

Los/as deportistas que opten al reconocimiento por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del carácter de Deportista Promesa 2016/2017 deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) Tener licencia tramitada por la Federación Territorial Vizcaína correspondiente, relativa al año 2016 o temporada 2016/2017.
 - b) Haber nacido entre los años 1997 y 2002, ambos incluidos.
- Excepcionalmente, se podrán incluir deportistas que hayan nacido con anterioridad o posterioridad a dichos años, siempre y cuando la respectiva Federación justifique motivadamente su inclusión.

Únicamente se atenderán las solicitudes relativas a deportistas que, como mínimo, hayan obtenido alguno de los siguientes méritos deportivos a partir de septiembre de 2015 hasta el fin del plazo de presentación de solicitudes:

- a) Disciplinas individuales:
 - Participar en competición internacional donde se dirima título oficial.
 - Batir récord estatal.
 - 1.^{er}, 2.^o o 3.^{er} puesto del Estado.
 - Participar y/o estar en proceso de grupos y/o selecciones de rendimiento a nivel estatal (CSD-CAR...) o autonómico.
 - 1.^{er} puesto de Euskadi.
 - Participar en pruebas que concedan acceso a campeonatos del mundo y Olimpiadas.
- b) Disciplinas de equipo:
 - Ser integrante de equipo que participe en competición regular de la máxima categoría estatal correspondiente a su edad o superior.
 - Ser integrante de selección estatal.
 - Participar con la selección autonómica en competición donde se dirima título oficial.
- c) En aquellas disciplinas en las que los méritos deportivos se puedan acreditar mediante resultados obtenidos en otras competiciones deportivas distintas de las anteriores, la Comisión Evaluadora prevista en el artículo 6 del presente Decreto foral valorará el resultado atendiendo a la relevancia deportiva del mismo, acreditada mediante informe, en todo caso, por la federación deportiva territorial vizcaína de la modalidad.

4. artikulua.—Dokumentazioa eta epeak

Bizkaiko Foru Aldundiak 2016/2017ko etorkizun handiko kirolari izaera aitortzeko eskabidearekin batera 2015eko irailetik eskabideak aurkezteko epea amaitu arte lortutako kirol-merezimenduen zerrenda aurkeztu beharko da (EK1 eranskinen dago guztia).

Eskabideak aurkezteko epea 2016ko irailaren 12etik 23ra izango da, egun bi horiek barne.

Erantsiko da, halaber:

- Kasuan kasuko kirol merezimenduak egiaztatzeko dokumentua.
- Nortasun agiriaren kopia.
- Federazio lizentziaren kopia.

Kirolari bakoitzeko EK1 eranskin bakarra bete beharko dira eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko da (Rekalde zumarkalea, 30, 1. solairua, Bilbo; ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan ezarritako moduan.

Kirolari adingabeen eskabideak aitak, amak edo legezko ordezkariak aurkeztuko ditu.

5. artikulua.—Hautaketa-irizpideak

Etorkizun handiko kirolarien zerrenda osatzeko, hautaketa-irizpide hauek erabiliko dira:

- Kirol-emaizak.
- Kirol modalitatearen eragina eta etorkizunean izan dezakeen garapena.
- Ebaluazio teknikoa.

6. artikulua.—Ebaluazio-batzordea

Ebaluazio-batzorde bat eratuko da 2016/2017an etorkizun handiko kirolaritzat joko direnen zerrenda osatzeko. Hautaketa-irizpideak aplikatuta osatuko du zerrenda hori.

Ebaluazio-batzorde hori hauek osatuko dute:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko buruak.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Federatuaren Ataleko buruak.
- Bizkaiko Kirol Federakundearen Elkarteak (ASFEDEBI) izendatutako pertsona batek.

Idazkari lanak Bizkaiko Foru Aldundian kirolaren arloko esku-menak dituen zerbitzuko teknikari batek egingo ditu.

Ebaluazio-batzordean Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikuluan eta hurrengoetan kide anitzeko organoaren funtzionamenduari buruz jasotzen diren arauak aplikatuko dira.

Ebaluazio-batzordeak laguntzaileak eta aholkulari espezialistak izendatu ahal izango ditu, eta haien laguntza eskatu, beharrezkotzat jotzen duenean. Pertsona horiek ematen zaizkien eginkizunak baino ez dituzte beteko.

Halaber, ebaluazio-batzordeak bi zerrenda osatuko ditu etorkizun handiko kirolaritzat jotako pertsonekin (I. maila eta II. maila), kirol-merezimenduak kontuan hartuta. Pertsona horiek foru dekretu honen 8. artikuluan agertzen diren onurak izango dituzte.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Kirol Zerbitzuaren bidez, aipatutako 8. artikuluko onuretzat nor jabetu den jarraipena egingo du, sexuaren arabera desagregaturiko datuekin.

7. artikulua.—Denbora-eremua

Bizkaiko Foru Aldundiak etorkizun handiko kirolari izaera aitortu ondoren, izaera horri eutsiko zaio 2017ko abenduaren 31ra arte.

Artículo 4.—Documentación y plazos

La solicitud para el reconocimiento por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del carácter de Deportista Promesa 2016/2017 deberá presentarse junto con la relación de méritos deportivos obtenidos a partir de septiembre de 2015 hasta el fin del plazo de presentación de solicitudes (todo ello en Anexo EK1).

El plazo para ello será del 12 al 23 de septiembre de 2016, ambos incluidos.

Deberá aportarse, además:

- Documento acreditativo de los méritos deportivos alegados.
- Copia del DNI u otro documento de identidad.
- Copia de la licencia federativa.

Deberá rellenarse un único Anexo EK1 por cada deportista, que será presentado en el Servicio de Deportes del Departamento de Euskera y Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, sita en Bilbao, Alda. Rekalde, 30, 1.º (de lunes a viernes, de 8:30 a 13:30 horas), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las solicitudes de los/las deportistas menores de edad serán presentadas por su padre, madre o representante legal.

Artículo 5.—Criterios de selección

Los criterios de selección para elaborar la lista de Deportistas Promesa serán:

- Resultados deportivos.
- Impacto de la modalidad deportiva y la estimación de su desarrollo a futuro.
- Valoración técnica.

Artículo 6.—Comisión Evaluadora

Se constituirá una Comisión Evaluadora que será la encargada de configurar la lista de deportistas que, en 2016/2017, tendrán la consideración de Deportista Promesa, en aplicación de los Criterios de Selección.

Dicha Comisión Evaluadora estará compuesta por:

- La persona responsable de la jefatura del Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia.
- La persona responsable de la jefatura de la Sección de Deporte Federado de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Una persona designada por la Asociación de Federaciones Deportivas de Bizkaia (ASFEDEBI).

Actuará como secretario/a una persona técnica del Servicio competente en materia de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia.

Para la Comisión Evaluadora serán de aplicación las normas contenidas en los artículos 22 y siguientes de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, referentes al funcionamiento de los órganos colegiados.

La Comisión Evaluadora podrá designar y solicitar la asistencia de personal colaborador y asesores especialistas que estime necesarios, quienes se limitarán al ejercicio de las funciones que les sean encomendadas.

Asimismo, la Comisión Evaluadora se encargará de confeccionar dos listas de entre las personas que obtengan la consideración de Deportista Promesa (denominadas Nivel I y Nivel II) dependiendo de sus méritos deportivos y que accederán a los Beneficios que figuran en el artículo 8 del presente Decreto Foral.

La Diputación Foral de Bizkaia, a través del Servicio de Deportes, realizará un seguimiento de datos desagregados por sexo del número de personas que hayan hecho uso de los citados beneficios del artículo 8.

Artículo 7.—Ámbito temporal

Una vez obtenido el reconocimiento de Deportista promesa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, se mantendrá dicha condición hasta el 31 de diciembre de 2017.

8. artikulua.—Etorkizun handiko kirolaritzat jotzeak dakar-tzan onurak

Bizkaiko Foru Aldundiak etorkizun handiko kirolaritzat jotako pertsonak programa batean sartuko dira eta ondoren aipatzen diren onurak izango dituzte, beren mailaren arabera. 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, onura horiek etorkizun handiko kirolari izaeraren aitortpena lortzen denetik beste zerrenda bat egin arte erabili ahal izango dira, edo etorkizun handiko kirolari izateko baldintzak galtzen diren arte.

a) I. maila:

- Mediku azterketa.
- Ekografia kardiakoa.
- Analitika.
- Mediku kontsulta.
- Orientazio dietetikoa.
- Bere kirol teknikariarekin batera kirolaria laguntzea, material eta euskarri teknikoak emanez kirol emaitzak hobetzeko.
- Etengabeko formazioa, izaera praktikoduna, hileroko taile-
rren bidez.
- Aholkularitza akademikoa kasuan kasuko hezkuntza alorrean eta goi mailako ikasketetarako sarbidea.

b) II. maila:

- Etengabeko formazioa, izaera praktikoduna, hileroko taile-
rren bidez.
- Aholkularitza akademikoa kasuan kasuko hezkuntza alorrean eta goi mailako ikasketetarako sarbidea.

9. artikulua.—Betebeharrak

Bizkaiko Foru Aldundiak etorkizun handiko kirolaritzat jotzen dituen pertsonak konpromisoa hartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiar baimena emateko haien irudia erabil dezan, aitortpena indarrean dagoen bitartean. Inolako mugarik gabe erabili ahal izango du eta kirolariak ez du izango ordainsaririk jasotzeko eskubiderik. Bizkaiko Foru Aldundiak irudi hori era egokian erabiliiko duela bermatzen du.

Halaber, pertsona horiek konpromisoa hartzen dute, aitortpena indarrean dagoen bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen dituen sustapen-jardueretara joateko, hala eskatzen zaienean.

Artikulu honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira etorkizun handiko kirolari izaera galduko da, ondorio guztietarako, eta, zehazki, foru dekretu honen 8. artikuluan ezarritako onurak galduko dira.

10. artikulua.—Aholkularitza

Zalantzaren bat izanez gero edo argibideren bat behar izanez gero, Bizkaiko Foru Aldundian kirol federatuaren arloan eskumena duen atalera jo daiteke.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa: Ahalmena ematen zaio Euskara eta Kultura Sai-leko foru diputatuari, foru dekretu hau hobeto garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena: Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2016ko uztailaren 26an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

Artículo 8.—Beneficios del reconocimiento de Deportista Promesa

Las personas que hayan obtenido el reconocimiento de Deportista Promesa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, se incorporarán a un programa en el que contarán con los beneficios que a continuación se exponen, dependiendo del nivel en el que hayan sido incluidas. La duración temporal de dichos beneficios será, de acuerdo con el artículo 7, desde la obtención del reconocimiento de Deportista Promesa hasta la elaboración de una nueva lista o hasta que dejen de cumplir los requisitos que fueron solicitados para obtener el reconocimiento de Deportista Promesa.

a) Nivel I:

- Reconocimiento médico.
- Ecografía cardíaca.
- Analítica.
- Consulta médica.
- Orientación dietética.
- Apoyo al deportista en colaboración con su Técnico Deportivo, facilitando soporte o material técnico que permita la mejora de su rendimiento deportivo.
- Formación continua, de carácter práctico, a través de talleres mensuales.
- Asesoría académica en diferentes itinerarios formativos y acceso a estudios superiores.

b) Nivel II:

- Formación continua, de carácter práctico, a través de talleres mensuales.
- Asesoría académica en diferentes itinerarios formativos y acceso a estudios superiores.

Artículo 9.—Obligaciones

Las personas que hayan obtenido el reconocimiento de Deportista Promesa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia se comprometen a permitir, por el tiempo que dure dicho reconocimiento, el uso de su imagen por parte de la Diputación Foral de Bizkaia sin limitación y sin derecho a retribución alguna, con la garantía de la Diputación Foral de Bizkaia respecto al buen uso de dicha imagen.

Asimismo, las citadas personas se comprometen a asistir, por el tiempo que dure dicho reconocimiento, a las actividades promocionales organizadas por la Diputación Foral de Bizkaia, cuando su asistencia sea requerida.

El incumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente artículo conllevará la pérdida, a todos los efectos, de la condición de Deportista Promesa y, en concreto, la revocación de los beneficios del artículo 8 del presente Decreto Foral.

Artículo 10.—Asesoramiento

En caso de tener alguna duda o necesitar alguna aclaración pueden contactar con la Sección competente en materia de Deporte Federado de la Diputación Foral de Bizkaia.

DISPOSICIONES FINALES

Primera: Se faculta a la diputada foral titular del Departamento de Euskera y Cultura para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el mejor desarrollo del presente Decreto Foral.

Segunda: El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 26 de julio de 2016.

La diputada foral de Euskera y Cultura,
LOREA BILBAO IBARRA

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

Kirol Zerbitzua / Servicio de Deportes Etorkizun handiko kirolariak 2016 Deportistas promesas 2016	I. Eranskina / Anexo I Eskabidea Solicitud BFAren 131/2016 FD DF de DFB 131/2016	EK1
		Data / Fecha
		Erregistro zk./ Nº de registro



ESKATZAILEAREN DATUAK ¹ / DATOS DE LA SOLICITANTE ¹						
IFZ / NIF		Deiturak eta izena, izendura edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre o razón social ²				
Sexua / Sexo ³ <input type="checkbox"/> Gizona / Hombre <input type="checkbox"/> Emakumea / Mujer		Helbidea (kalea, plaza...) / Domicilio (calle, plaza, etc.)				
Etxe zk. / Nº casa	Eskailera / Escalera	Solairua / Piso	Atea / Puerta	Udalerría / Municipio	P. K. / C. P.	
Lurraldea / Territorio ⁴			Telefonoa / Teléfono	Sakelakoa / Móvil	Faxa / Fax	
Posta elektronikoa / Correo electrónico				Web orria / Página web		

ORDEZKARIAREN DATUAK ⁵ / DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE ⁵			
IFZ / NIF		Deiturak eta izena / Apellidos y nombre	
Eskatzailearekin harremana / Relación con la Solicitante			
Telefonoa / Teléfono	Sakelakoa / Móvil	Faxa / Fax	Posta elektronikoa / Correo electrónico

¹ Eskatzailearen datuak: Eskabidea aurkezten duen pertsona ez bada proiektua egin behar duena, haren datuak adierazi behar dira "Ordezkararen datuak" atalean.

¹ Datos de la solicitante: En caso de que la persona que presenta la solicitud no coincida con la persona que desarrolla el proyecto, debe rellenar sus datos en "Datos de la persona representante".

² Izen-abizenak, pertsona fisiko bat bada, edo, izen soziala, erakunde bat bada.

² Nombre y apellidos en caso de que se trate de una persona física, o Razón Social en caso de una entidad.

³ Dagokion laukitxoak markatu baldin eta pertsona fisiko bat bada (estatistikak egiteko eskatzen da).

³ Marcar la cuadrícula correspondiente en caso de que se trate de una persona física (se solicita para fines estadísticos)

⁴ Lurralde Historikoa (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba) edo probintzia / autonomia-erkidegoa / estatua; kasuan-kasuan dagokiona.

⁴ Territorio Histórico (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba-Alava) o provincia / comunidad autónoma / estado, en su caso.

⁵ Ordezkaría dagoenean soilik bete behar da atal hau, eta adierazi behar da eskatzailearekin zein harreman daukan.

⁵ Solo debe rellenar este apartado si existe dicha figura, indicando su relación con la Solicitante.

Kirol merezimenduen egiaztageria / Acreditación de méritos deportivos Kirol emaitzak 2015eko irailetik data honetara arte / Resultados deportivos a partir de septiembre de 2015 hasta la fecha BANAKAKO DIZIPLINAK / DISCIPLINAS INDIVIDUALES					
Kirolariaren izen-deiturak / Nombre y apellidos:			Kirol modalitatea eta diziplina / Modalidad y disciplina		
Kirolariaren jaiotza data / Fecha de nacimiento			Maila / Categoría		
Titulu ofiziala ematen duen nazioarteko lehiaketaren batean parte hartzea. Participar en competición internacional donde se dirima título oficial.					
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:	Postua / puesto:	Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior	
				Bai / Sí	Ez / No
Titulu ofiziala ematen EZ duen nazioarteko lehiaketaren batean parte hartzea. Participar en competición internacional donde NO se dirima título oficial.					
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:	Postua / puesto:	Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior	
				Bai / Sí	Ez / No
Estatu mailako errekorra haustea. Batir récord estatal.					
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:	Postua / puesto:	Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior	
				Bai / Sí	Ez / No
Estatu mailako 1., 2. edo 3. postua lortzea. 1er, 2º o 3er puesto del estado.					
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:	Postua / puesto:	Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior	
				Bai / Sí	Ez / No
Euskadiko 1. postua lortzea. 1er puesto de Euskadi.					
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:	Postua / puesto:	Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior	
				Bai / Sí	Ez / No
Kontzentrazioak edo teknifikazioak estatuko selekzioarekin edo Euskadikoarekin. Concentraciones o tecnificaciones con la selección estatal o autonómica.					
Data honetatik / Desde	Non / lugar:	Zein selekzio / Selección		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior	
Data honetara / Hasta		Estatukoa Estatal	Euskadikoa Autonómica	Bai / Sí	Ez / No
Kasuan kasuko kirol merezimenduak egiaztatzeko dokumentua, nortasun agiriaren kopia eta federazio lizentziaren kopia erantsi behar dira. Deberá aportarse documento acreditativo de los méritos deportivos alegados, copia del DNI u otro documento de identidad y copia de la licencia federativa.					

Kirol merezimenduen egiaztagiria / Acreditación de méritos deportivos

Kirol emaitzak 2015eko irailetik data honetara arte / Resultados deportivos a partir de septiembre de 2015 hasta la fecha

BINAKAKO, HIRUNAKAKO EDO ERRELEBOETAKO DIZIPLINAK / DISCIPLINAS DE PAREJAS, TRÍOS O RELEVOS

Kirolariaren izen-deiturak / Nombre y apellidos:

Kirol modalitatea eta diziplina / Modalidad y disciplina

Kirolariaren jaiotza data / Fecha de nacimiento

Maila / Categoría

Titulu ofiziala ematen duen nazioarteko lehiaketaren batean parte hartzea.
Participar en competición internacional donde se dirima título oficial.

Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:	Postua / puesto:	Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior		
				Bai / Sí	Ez / No	

Titulu ofiziala ematen EZ duen nazioarteko lehiaketaren batean parte hartzea.
Participar en competición internacional donde NO se dirima título oficial.

Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:	Postua / puesto:	Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior		
				Bai / Sí	Ez / No	

Estatu mailako errekorra haustea.
Batir récord estatal.

Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:	Postua / puesto:	Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior		
				Bai / Sí	Ez / No	

Estatu mailako 1., 2. edo 3. postua lortzea.
1er, 2º o 3er puesto del estado.

Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:	Postua / puesto:	Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior		
				Bai / Sí	Ez / No	

Euskadiko 1. postua lortzea.
1er puesto de Euskadi.

Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:	Postua / puesto:	Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior		
				Bai / Sí	Ez / No	

Kontzentrazioak edo teknifikazioak estatuko selekzioarekin edo Euskadikoarekin.
Concentraciones o tecnificaciones con la selección estatal o autonómica.

Data honetatik / Desde	Non / lugar:	Zein selekzio / Selección		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior		
Data honetara / Hasta		Estatukoa Estatal	Euskadikoa Autonómica	Bai / Sí	Ez / No	

Kasuan kasuko kirol merezimenduak egiaztatzeko dokumentua, nortasun agiriaren kopia eta federazio lizentziaren kopia erantsi behar dira.

Deberá aportarse documento acreditativo de los méritos deportivos alegados, copia del DNI u otro documento de identidad y copia de la licencia federativa.

Kirol merezimenduen egiaztatzea / Acreditación de méritos deportivos Kirol emaitzak 2015eko irailetik data honetara arte / <i>Resultados deportivos a partir de septiembre de 2015 hasta la fecha</i>					
TALDEKAKO DIZIPLINAK / DISCIPLINAS DE EQUIPO					
Kirolariaren izen-deiturak / <i>Nombre y apellidos:</i>			Kirol modalitatea eta diziplina / <i>Modalidad y disciplina</i>		
Kirolariaren jaiotza data / <i>Fecha de nacimiento</i>			Maila / <i>Categoría</i>		
Estatuko gorengo mailako lehiaketa erregularrean ari den talde bateko partaide izatea adinari dagokion mailan edo goragokoan. <i>Ser integrante de un equipo que participe en competición regular de la máxima categoría estatal correspondiente a su edad, o superior.</i>					
Denboraldia / <i>Temporada:</i>	Taldea / <i>Equipo:</i>	Lehiaketaren izena / <i>Competición:</i>		Goragoko mailan / <i>En categoría superior</i>	
				Bai / <i>Sí</i>	Ez / <i>No</i>
Kontzentrazioak edo teknifikazioak estatuko selekzioarekin edo Euskadikoarekin. <i>Concentraciones o tecnificaciones con la selección estatal o autonómica.</i>					
Data honetatik / <i>Desde</i>	Non / <i>lugar:</i>	Zein selekzio / <i>Selección</i>		Goragoko mailan lortu da / <i>En categoría superior</i>	
Data honetara / <i>Hasta</i>		Estatukoa Estatal	Euskadikoa Autonómica	Bai / <i>Sí</i>	Ez / <i>No</i>
Kasuan kasuko kirol merezimenduak egiaztatze dokumentua, nortasun agiriaren kopia eta federazio lizentziaren kopia erantsi behar dira. <i>Deberá aportarse documento acreditativo de los méritos deportivos alegados, copia del DNI u otro documento de identidad y copia de la licencia federativa.</i>					

SINADURA ETA BALDINTZAK / FIRMA Y CONDICIONES

Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu zure datuak fitxategi batean sartuko direla, dirulaguntzen deialdi hau eta deialdi honekin zerikusia duen beste edozein administrazio espediente kudeatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara eta Kultura Saila da fitxategi horren arduraduna, eta haren aurrean fitxategia erabili, zuzendu, ezabatu eta aurkaratzeko eskubidea baliatu ahalko duzu; horretarako, Zerbitzuak (helbidea: Errekalde zemarkaleko 30.ean, 1. Solairuan, Bilbo) jendea hartzeko dituen bulegoetara joan eta NANA aurkeztu behar duzu.

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, sobre Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que sus datos van a ser incluidos en un fichero con la finalidad de gestionar la presente convocatoria y cualquier otro expediente administrativo relacionado con la misma.

La responsable de este fichero es el Departamento de Euskera y Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, ante quien usted podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose para ello a las oficinas del Servicio en Alameda de Rekalde, 30, 1º de Bilbao, donde deberá presentar su DNI o documento identificativo equivalente.

Bilbo, 201 (e)ko ren a

Bilbao, a de de 201

Pertsona fisikoak egiten badu eskaera (adin gabeen kasuan, aitak, amak edo ordezkari legalak)

En el caso de que sea la persona física la que realice la solicitud (en el caso de los menores de edad, padre, madre o representante legal)

Sinadura / Firma